

«Askori errazago egiten zaio feministak ez garela ‘benetako egiptoarrak’ esatea»

Egiptoko agintariak eta egoera salatzeke ausardia izaten duten guztiek bezalaxe, Mozn Hassanek ere badaki Estatua-ren errepresioak kartzelara eraman dezakeela, “Gobernuz kanpoko erakundeen atzerriko finantzazioa” izeneko auzian Nazra baita akusatutako erakunde feminista bakarra. Bere delitua, «emakumeen eskubideen bortxaketaren inguruan gehiegi, garbiegi eta ozenki hitz egitea». Abenduan emango dituzte sariak Stockholm Suediako hiriburuan, baina ekintzaile feministak debekatuta dauka Egiptotik irtetea eta ekitaldian esku hartzerik ez du izango.

Orrialdeotan Mozn Hassanek berak egindako adierazpenak laburbildu ditugu, arabiar munduko emakumeen egoeraren inguruan ditugun “uste” ustel batzuk agerian uzteko interesgarriak direlakoan.

Aldi berean, Egiptoko eta Euskal Herriko feministek bizi dituzten egoerak ez direla hain ezberdinak konturatzeko ere balio dute sarituaren hausnarketek, hemen bezalaxe, hango giro iraultzaileetan ere emakumeei esaten baitzaie beren aldarrikapenak ondo daudela, baina lehentasuna beste bat dela, alegia, bigarren mailako gizaki izaten jarraitu beharko dutela ditxosozko “Iraultza” iritsi arte.

Hala ere, ezin da esan Egiptoko emakumeek egunero bizi duten egoera Euskal Herrikoen egoeraren tankerakoa denik. Afrikako iparraldeko herrialdean sexu jazarpena ikaragarria da, eta emakumeak bortxatzea eta erasotzea normalizatzen dute herritar askok: emakumeen genitalen mutilazioa defenditu izan dute parlamentari batzuek, pentsa!

Errealitate horren ondoan bestelako Egipto bat eraiki nahi duten emakume ekintzaileak daude ordea, tradizio feminista

ez baita atzo goizekoa faraoien herrialdean.

Zure lana saritu du Right Livelihood Award fundazioak. Zer iruditzen zaizu?

Ez dut uste bakarrik nire lana nabarmendu nahi dutenik, beren eskubideak defenditzen dituen emakume guzti-guztien baizik, sexu jazarpena jasan behar izan dutenen borroka, eta baita horiei laguntza eman die tenena ere.

Abdelfatah Al-Sissiren Gobernuak herrialdetik irtetea debekatu dizu, giza eskubideen aldeko ekintzaile guztiekin egiten duen moduan. Egiptoko

MOZN HASSAN

NAZRA ERAKUNDEAREN SORTZAILEA

Right Livelihood Award fundazioak Nobel Alternatiboa eman berri dio Mozn Hassan Egiptoko ekintzaile feministari. Benetako askatasuna nahi du emakume guztientzat, «zer nahi duten hautatzeko benetako aukera izan dezaten, egiten duten aukeraketa niri ez gustatuta ere».

joseangel.oria@gaur8.info

talde ekintzaileen aurkako kanpaina bat al dago zure herrialdean?

Bai, hori garbia da, baina herrialdetik irtetea debekatzearen helburua ez da soilik gizarte zibila menderatzea. Gizartearen aurrean gu estigmatizatzeke eta iraintzeko erabiltzen dute atzerri bidaiaetzearen debekua; hemen bizi ez den jendea garela adierazi nahi dute nolabait. Hori egiten digute herri mailan gauza asko egiten ari garelako, aurrera egiten dugulako. Arraroa bada ere, nazioarteko espioiak garela dioen kanpainaren beste zati baino ez da. Edo bidaiatu nahi dugula herrialdetik ihes egiten nahi dugulako.

Giza eskubideen aldeko ekintzaile moduan, espazio publiko bat behar duzu zure jarduerarako, herritarrek onartzea, jorratu nahi dituzun gaiak gizartearen oraindik onartu gabekoak baitira. Eta Gobernuak esaten badu zu espioi bat zarela, herritar ustel bat, beti Egiptoren aurkako mezuak botatzen aritzen zarela... zailagoa da mugimenduentzat herritarren laguntza eta konplizitatea eskuratzea.

Zuen aurkako beste gauzarik egiten al dute agintariek?

Ekitaldi publikoak antolatzea debekatuta dugu, segurtasun indarrek etengabe zelatatzen gaituzte, gure bulegora azaltzen dira, Gizarte Elkartasunaren Ministerioak finantzazioa ukatzen digu, gure dirua izoztu egiten dute... Giza eskubideen aldeko mugimenduak ez zuen horrelako egoerarik inoiz ezagutu Egipton.

Berria al da Egipton gizarte zibila espazio publikotik kanpo edukitzeko joera hori?

Giza eskubideen aldeko lanean ari garenon gainean jarritako estigma hori Hosni Mubaraken garaian ere bagenuen, nahiz eta egoera zertxobait aldatu egin den. Egia esan, ez dut uste inoiz benetako espazio publiko bat izan dugunik. Orain bost urteko iraultzaren garaian askatasun gehiago izan genuen, gehiago mugitzeko aukera, herritarrek gai horien inguruan hitz egiten zuten. Baina mugimendu feministaren aurkako estigma eraikitzen aspaldi hasi ziren gure herrialdean. 1900. urtean esaten zen dagoeneko feministak men-debaldartuta zeudela. Egoera hori ez da azken bost urteotan sortutakoa.

Iraultzak ekarri zuena polarizazioa da. Bi aukera baino ez daude: gauza baten alde ala aurka. Iraultzaren alde ala aurka. Anaia Musulmanen alde ala kontra. Sissiren alde ez zaudela esanez gero, Anaia Musulmanen aldekoa zarela esan nahi du, eta hori ez da egia! Polarizazio horrek ez dio batere laguntzen giza eskubideen aldeko mugimenduari, aldaketa sozialaren alde-

koari; bai ala ez esatera behartzen zaituzte, eta gizartearen aldatu nahi baduzu beste aukerak ere ikusgai egotea behar duzu.

Emakumeen eskubideak sakrifikatu al dituzte?

Erabat militarizatutako herrialde batean bizi gara eta horrek giza eskubideak eta askatasuna baztertzen ditu. Eta erregimen militarizatu guztiak patriarkalak direnez, esan daiteke emakumeen eskubideak sakrifikatzen ari direla. Baina gauza bera gertatzen da giza mugimenduetan ere.

Iraultzaren garaian esaten zitzagun «hau ez da emakumeen eskubideei buruz hitz egiteko unea, iraultzaren garaia da-eta». Horrek bakoitzak dituen lehentasunekin du zerikusia: emakumeen eskubideak gizarte aldatetaren bihotzean ikusten dituzun ala ez. Ez da Gobernuaren arazoa bakarrik, jende askorentzat emakumeen eskubideak ez baitira garrantzizkoak. Geure eskubideak albo batera uzteko esaten zaigu, eta giza mugimenduen global batean borroka egiteko, eta eskubide horiek lortuko direla mugimendu horri esker. Baina badakigu gauzak ez direla horrela. Erabat feministak diren ekintzaileak behar dira, egunero emakumeen eskubideen aldeko borrokan ibiliko direnak.

Zein da ekintzaile eta feministen zeregina ia espazio publikorik ez duten garai honetan, gizarte zibilak horrelako jazarpena jasaten duen unean?

Zure mugimendua egokia dela iruditzen bazaizu, ezin duzu pentsatu gizartetik kanpo ibilita ezer lortuko duzunik. Horrelako mugimenduek ez dute balio guk nahi duguna lortzeko.

Nazra erakundean, esaterako, zerbitzuak eskaintzen ditugu, babes legala eta zerbitzu medikuak ematen dizkiegu indarkeria sexualaren biktimei, eta bide horretatik jarraitu nahi dugu. Hori egitea gizarteak aurrera egin dezan ona baita. Ez da garai batean bezala... Orain errutina bat dugu, bulegora etortzen gara, lanean ari gara, bestelako bideen bila.

Indarkeria sexualaren biktimei ematen diezue zuen laguntza. Nola ikusten dira Egipton kasu horiek?

Bortxaketari buruz hitz egitea, bortxaketa kolektiboen inguruan aritzea, gatazkatsua da oraindik, arlo pribatuan zein publikoan.

Hala ere, nik esango nuke mugimendu feministari esker azken urteotan gai horiek lehen baino errazago onartzen direla. 2004an jazarpen sexualaren inguruan lanean hasi nintzenean egoera askoz ere itxiagoa zen. Orain, aldiz, emakume gehiago ikusiko dituzu horri buruz hitzetan, legea nola aldatu eztabaidatzen, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako estrategia globalak eskatzen... Gainera, kasu batzuk epaitegietara iristen dira, hedabideek aipatzen dute gaia, nahiz eta kasu askotan oso gaizki hitz egiten duten. Baina herritarrentzat gero eta normalagoa da. Kontua ez da bakarrik gai horiek hedabideetan egotea, baizik eta emakumeek beraien artean ere hitz egitea, laguntza bilatzea.

Mugimendu feministak lan asko egin du emakumeen aurkako indarkeriari buruz gehiago hitz egin dadin eta ondo ari garelako esango nuke. Arazoa ukatzeak ez du laguntzen konponbidea aurkitzen. Emakume bortxatuak egon badaudela ukatzeak, fenomeno sozial hori egon badagoela ukatzeak, ez du batere laguntzen.

2011n Hosni Mubaraken aurkako mobilizazio jendetsuak hartu zituen Tahrir plazan manifestari ugari bortxatu zituzten. Baita kazetari batzuk ere. Egoera aldatu al da?

Egipton indarkeria sexuala dugu. Egoera ez da gaur egun Tahrir plazako protesta egunetan bizi genuena, orain espazio publikorik gabe geratu baikara. Hala ere, jai egunetan eta jende asko elkartzen den guztietan, makina bat bortxaketa izaten da: kontzertuetan, futbol partidatan... Indarkeria sexuala fenomeno soziala da Egipton. Tahrir plazan gertatu zenak arrazoi politikoak zituen azpian, espazio



publiko batean gertatu baitzen, eta politizatu egin zen. Baina gauza bera gertatzen da plazatik kanpo ere, Iraultza baino lehen eta ondoren ere bai. Jazarpen sexuala bazter guztietara iristen den Egipto bezalako herrialde batean, denbora askoan guztiz onartutako fenomeno bat izan denean, indarkeria sexuala eta bortxaketak sortzen dira. Egunero-egunero gertatzen den zerbait da. Tahrir plazako bortxaketak gehiago komentatu ziren jende askok politikoki erabili nahi zituelako, baina sakondu gabe, emakumeen aurkako indarkeria Egipton fenomeno soziala dela ikusi gabe.

Inoiz baino emakume gehiago ditu gaur egun Egiptoko Parlamentuak.

Bi kontu bereizi behar dira. Espazio publikoan existitzeko emakumeek dugun eskubidea hor dago, baita espazio zehatz bat edo emakume jakin bat gure gustuko ez izanda ere. Mugimenduan argitu behar dugu ea emakumeak hor izatea nahi dugun geure emakumeak hor izatea nahi dugulako, edota emakumeak espazio publikoan eta erantzukizun maila ezberdinekin egotea nahi dugulako. Nazran, izan ere, horixe nahi dugu: emakumeak nahi ditugu Parlamentuan, emakumeek prozesuak zuzentzea nahi dugu, nahiz eta emakume jakin horiek geure gustukoak ez izan. Garai batean Parlamentuan bost emakume baino ez zeuden, eta gaur 89 daude. Eta horietako batzuk sekulako lana egiten ari dira, batez ere bizi dugun egoera berezia kontuan hartuta. Nadia Henry sektarismoaren aurka egiten ari dena aipatzekoa da. Edo Anissa Hassouna eta Mona Mounir egiten ari direna.

Zer-nolako tratua jasotzen duzue arabiar feministek?

Feministak gaur egungo Egiptoko gizartearen zati gara, gutxiago edo gehiago gustatuta ere. Beren eskubideak aldarrikatzen zituzten emakumeak baziren XIX. mendean ere. Ezin da esan mendebaldartutako zerbait denik, arabiar gizarteetan beti bi-

garren mailako herritar moduan bizitzea mereziko bagenu bezala.

Badakit geure mugimendua-
ren eta beste mugimendu femi-
nisten artean alde handia dago-
ela, baina hori nazioarteko
feminismoaren ezaugarrietako
bat da. Herrialde bakoitzean
bertako historiaren eragina iza-
ten baitute. Feminismoa mug-
imendu irekia eta anitza da,
Egipton bere historia propioa
duena. Askori gustatzen zaie
emakume horiek ez direla inoiz
hemen existitu esatea, gizarte
patriarkal batean bizi baikara:
gizonek beren pribilegioak gus-
tuko dituzte eta ez dituzte galdu
nahi. Errazago egiten zaie ema-
kume horiek, feministak, ez di-
rela “benetako egiptoarrak” esa-
tea, ez direla emakumeak, ez
direla zintzoak, putak direla.
Irain horiek guztiek patriarka-
tuarekin dute zerikusia. Femi-
nismoak hasiera-hasieratik iku-
si behar du gizarte honek ez
dituela era berean tratatzen gi-
zonak eta emakumeak.

**Zer diozu feminismo islamiko-
az?**

Mugimendu feministaren zatie-
tako bat da, mugimendua ikus-
teko beste modu bat. Izan ere,
gure mugimendua ez da bloke
homogeneo bat. Feminismoa-
ren lehen olatua daukazu, biga-
rrena, hirugarrena, feminismo
kulturala, islamikoa, feminista
liberalak... Feminismo islamiko-
ak esan nahi du beste edozer
baino lehen feminista dela.

Mendebaldean askok uste du-
te zapia daraman edozein ema-
kume feminista islamikoa dela.
Edo mugimendu politiko isla-
mistaren batean esku hartzen
duten emakume guztiak femi-
nismo islamikoan sartuta dau-
dela. Ez da horrela. Gauzak alda-
tzen ari den ideologia bat dago
atzean. Esaterako, nazioartean
lanean ari da WLUML Musul-
man Legeen Azpian Bizi Diren
Emakumeak izeneko erakundea,
feminismo islamikoaren ba-
rruan lan ideologikoa egiten ari
dena. Eta kontzeptu hori ez da
nahastu behar ez “emakume
musulmanekin”, ez “mugimen-
du politiko islamikoetan dau-



den emakumeekin”. Mundu is-
lamikoan bizi diren emakume-
ak dira, baina lehenik eta behin
feministak dira. Batzuek zapia
daramate buruan, baina femi-
nistak dira. Eta beste feminista
batzuek ez dute zapirik janzen.
Feminismoa islamaren ikus-
puntutik ikusten dute, baina fe-
ministak dira. Esaterako, Amina
Wadud, Ameriketako Estatu Ba-
tuetan gizonen zein emakume-
en ostiraleko otoitza zuzendu
zuen emakumea. Feminista iza-
teko era asko daude gaur egun.

**Ondo tratatzen al dira Mende-
baldean, gizartean zein hedabi-
deetan, arabiar feministen bo-
rrokak?**

*«Emakumeek zapia
eramateko
eskubidea dute.
Baita ez
eramatekoa ere,
hori gutxiago
aipatzen bada ere»*

Ez dut gogoko gauzak orokor-
tzea. Badaude beren arazo pro-
pioak feminismoaren garrantzi-
tsuenak direnik uste ez duten
“feminista zuriak”. Eta hedabi-
deek, berriz, istorio leunak di-
tuzte gustuko, batere sakondu
gabe. Emakumeei dagokienez,
naif samarrak dira gehienetan.
Berriek herritarrak erakarri be-
har dituzte. Beraz, gauza sako-
negiak esateko aukerarik ez du-
gu izaten, badakigulako zer nahi
duten, azalean geratu, inor mo-
lestatu gabe.

**Zer iruditzen zaizu Mendebal-
deko herrialde batzuetan bur-
kiniaren inguruan aurten izan
den eztabaida?**

Niretzat oso eztabaida ezatsegi-
na izan zen. Gai horren ingu-
ruan oso erraza da emakumeek
arropa bat eramateko eskubidea
dutela edo ez dutela esatea. Bur-
kiniaren aldeko batzuek esaten
dute Mendebaldeko herrialdee-
tan bizita ere, genitalen mutila-
zioari ez eusteko arrazoirik ez
dagoela. Azkenean, erantzun be-
harreko galdera beti da emaku-
mearen gorputzaren ingurukoa.
Eskuin muturrekoentzat arabiar
jatorriko emakumeak beti dira
kanpokoak, nahiz eta eurak eta
euren gurasoak Mendebaldean
jaiotakoak izan. Eta beren burua
erlijiosotzat duten bigarren be-
launaldiko musulmanek ere
esaten dute beren kulturari eus-
tsi beharrean daudela. Emaku-
meok karga bikoitza eraman be-
har dute: jatorrizko herrialdean
ez bizitzeaz gain, ondare kultu-
ralaren karga eraman behar du-
te, beraiek eutsi behar duten ho-
ri, eta hori oso gogorra da.

**Emakumearen eskubideen
aurkakoa al da zapia?**

Ezta pentsatu ere. Zapia erama-
tea, berez, eskubide bat da. Ema-
kumeek zapia eramateko esku-
bidea dute. Baita ez eramatekoa
ere, hori gutxiago aipatzen bada
ere. Arazoa da zapia eramateko
eskubideaz hitz egiten dutenek,
ez dutela onartzen emakume
batek ez eramatea. Ingurukoek
etengabe esaten badizute hobe-
to zaudela zapiarekin, senarra
aurkituko duzula zapiari esker,
konfiantza gehiago transmiti-
tzen duzula zapiarekin eta be-
randuago arte irteteko aukera
ematen dizula, zure lagunek
eramaten badute, eta ez erama-
tea erabakiz gero estigmatizatu-
ko bazaituzte, irainduko bazai-
tuzte... non dago hautatzeko
eskubidea? Egipton zapia ken-
duz gero zer gertatzen den ikus-
ten dugu: gizartearen, familia-
ren eta estigmaren aurka
borrokatu behar duzu, lanean
eta bazter guztietan... Zapia da-
ramaten emakumeak ez dira
kausa feministaren aurkakoak.
Feminista gisa, emakumeentzat
nahi dut hautatzeko benetako
aukera, askatasun sakona, baita
gero aukeratzen dutena nire
gustukoa ez bada ere.